



Tourra 91

Indurain

Txapeldun

GAKOAK

Erregularitasuna

□ Indurainek ez du egun bakar batean ere hutsegin. Erlojupekoetan maila gorena erakutsi du, mendian inor ez da nafarra atzera uzteko gai izan, eta ordekan korredore fina dena begibistan utzi du.

Lemonden beherakada

□ Tourra hasi aurretik Lemond faborito argia iragarri zen. Azken bi urteetako irabazleak aurreneko etapen bi minutu pasako aldea ere ateratzen, baina mendian pott egin du. Estatubatuarra sasoi betean egonda, zail izango zukeen garaipena nafarrak.

Ekonomia

□ Alferrikako ahaleginik ez du egin Indurainek. Val Louronen mailot horia jantzi zuenetik, etsai arriskutsuenei eutsi besterik ez du egin Banestokoak, gorputza gehiegi behartu gabe. Estrategia onena aukeratu du garaipena ziurtatzeko, gehiegikeriak bazterreratzen utzita. Kritika ugari jaso ditu sarri ezkutuan ibili delako, baina inoiz ez da aztoratu.

Banesto

□ Lidergoa karreran irabazi behar izan du Indurainek, baina Etxabarrik bere alde apostu egin duenetik Banestok ezin hobe babestu du Atarrabiakoa. Kontrola erabatekoa izan da, gainerantzekoek irabazteko aukerarik ez dutela erakustearaino.

Jean François Bernard

□ Delgado eta Induraintzat lan egitera etorri da Bernard frantziarra Tourrera, eta gregario finena azaldu da nafarrarentzat. Alpeetan leher egin arte aritu da haren mesederako, neurrigabeko umiltasuna erakutsiz.

Bugno zaintzea

□ Karrera aurrera joan ahala argi ikusi du Indurainek Gianni Bugno zela etsai arriskutsuena, eta italiararren gorpilari jarraitu dio. Alpe d'Huezeko ondo eutsi zion, Bernarden laguntzarekin, eta Gatoradekoak etsi egin behar izan du.

Klasea

□ Txirrindulari bezala klase izugarria erakustez gain, ondo ikusia dago Indurain nazioarteko tropelean. Inoiz hitz gogorrik bota gabe, beti umil, behar izan duenean Banestotik kanpo ere laguntza topatu du. Etsaiekin ere jakituria handiz jokatu du, Alpe d'Huezeko Bugnori etapa irabazteko eragozpenik jarri gabe, esaterako.

Indurainek zazpigarrenean ondo landutako Tourra irabaziko du


Delgadoren itzalpetik irtetea lortu eta jaun eta jabe agertu da

MACON

Miguel Indurainek gorakada izugarria egin du Frantziako Itzulian, iaz arrasto onetik zihola erakutsi eta gero. Zazpigarrenen Tourra da aurtengoa Atarrabiakoarentzat, eta 'La Grande Boucle' irabazteko behar den prestaketa eta heldutasuna apurka jaso baditu ere, aurreneko urteetan ez zizudien hain ondo moldatzeko aukerarik izango zuenik. Estraineko Tourra 1985ean egin zuen Miguel Indurainek, eta aurreneko astean erretiratu egin zen. Debut txarra ez zuen hurrengo urtean zuzendu, berriz ere bertan behera utzi bait zuen karrera, atsekabeturik. 1987an lortu zuen aurreneko Frantziako Itzulia amaitzea, baina 97. postuan sailkatu zen, gauza handirik erakutsi gabe. Klasea igartzen zitzaion, baina mendian trakets, ez zizudien Tourra irabazteko moduko korredorea.

Etxabarrik argi ikusi zuen Indurainen balioa, eta Banestoko zuzendariak —orduan oraindik Reynolds zena— mimo handiz landu du txapeldunaren karrera, gehiegi behartu gabe inoiz. 1988an 47. postuan bukatu zuen Tourra Indurainek, orduan ere gehiagi nabarmendu gabe. Delgadoren laguntzen zion bitartean —Tourra irabazi zuen—, aurrerago haren lekukoa hartzeko prestatzen ari zen ordea nafarra.

Garapen handia agertu zuen 1989an, eta Pirinioetan etapa garaipena lortzeaz gain hamazazpigarren posturaino igo zen sailkapen orokorrean. Alpeetan izan zituen arazo



Indurainek mendian oso atzera utzi du Lemond.

Indurainen Tourrak

1985	Erretiratu
1986	Erretiratu
1987	97. postua
1988	47. postua
1989	17. postua eta etapa
1990	10. postua eta etapa
1991	Irabazlea eta bi etapa

handienak. Eztanda ordea 1990ean egin zuen. Delgadorentzat lan esker-gaitza egin zuen iaz Indurainek

—aurten Bernardek nafarrarentzat egin duenaren parekoa—, eta hamargarren postuan amaitu zuen, etapa bat irabazi eta gero.

Gaur Pariseko Perc des Princesen amaituko den Tourra, mailot horia jantzita sartuko den Induraintzat zazpigarrena izango da. Aurten ere etapa garaipena lortu du, Aleçoneko erlojupeko luzean—, baina aurrekoetan ez bezala Delgadoren itzalpetik kanpo, merezitako garaipena eskuratuko du. Atarrabiakoaren umiltasunak behar baino gehiago atzeratu du agian Tourreko garaipena, baina bide luzea agertzen zaio aurrean 27 urteko mozkoteari. Luzea eta eman-korra, ez bait du gehiago gregario lana egin beharko Tourrean.

HITZETZ HITZ

“Lortu dudan aldearekin, nire etsai asko bazterreratzen geratu dira. Sasoirik onenean nago, eta mendian eskalatzaileek ez didate lau minutu kenduko.

Greg Lemond, Dijon

“Tourra amaitu arte edozer gerta daiteke, baina dagoeneko Lemondek ez du zereginik eta Indurain lider doa indartsuena dela erakutsi duelako. Txapeldunen neurria eta ziurtasuna erakutsi ditu.

Claudio Chiappucci, Val Louron

“Indurainek ez du Tourrean sekula mailot horiaren pisua eraman beharrik izan, eta zail da igartzen nola erantzun duen. Baina karreran erakutsi duen jarrera txapeldun handiarena izan da.

Bernard Hinault, Val Louron

“Indurainek Tourra ia irabazia du, baina karreran sarri profesionala baino amatearra dirudi, tropelaren atzekaldean; eta hori arriskutsua da.

Cyrille Guimard, Ales

“Indurainek ezin du gehiago ezkutatu. Ez dut uste nafarrak Tourra irabazteko modurik izango duenik, eta orain liderra izan arren, Bugnori aukera handiagoak ematen dizkion.

Greg Lemond, Ales

“Lemondek Indurainen korritze-ko modua kritikatu du, baina berak ez luke ahaztu behar azken bi Tourrak antzerako taktika erabiliz irabazi dituela.

Bernard Hinault, Gap

“Indurainek Alpe d'Huezeko duena, izugarritzko erakustaldia izan da. Gaur ikusitakoaren ondoren, nor ausartuko da Banestoko korredoreari erasotzen?

Eddy Merckx, Alpe d'Huez

} Indurain sasoi ikaragarrian dago, gainerantzeko korredoreak baino maila goragoan. Ez du Tourra galtzeko inolako arriskurik.

Gianni Bugno, Aix les Bains

} Tourra ahal duenak irabazten du, indartsuena dena erakusten duenak, eta ez gehien prestatu denak.

Miguel Indurain, Aix les Bains

Indurain egunez egun

Etapak

Postua	Irabazlea	Tartea	Liderra
P.	Marie	0.09	Marie (-0.09)
1.	77	Abdonjaparov	1.44
		Arioste	1.05
2.	57	De Wilde	0.00
3.	98	Abdonjaparov	0.00
4.	49	Nijdam	0.13
5.	46	Marie	1.54
6.	75	Van Poppel	0.00
7.	1	Indurain	—
8.	66	Ribeiro	0.53
9.	74	Anderson	0.06
10.	52	Mottet	0.00
11.	7	Mottet	6.49
12.	2	Chiappucci	0.01
13.	31	Cenghialta	1.36
14.	42	Argentin	1.53
15.	31	Lietti	0.28
16.	2	Bugno	0.01
17.	11	Claveyrolat	0.30
18.	64	Konishiev	1.50
19.	61	Ekimov	0.07
20.	1	Indurain	—
21.			

Orokorra

Indurain	Bugno	Lemond	Chiapp.	Mottet	Fignon	Delgado
7	+0.09	-0.06	+0.06	+0.07	+0.13	+0.08
	+0.09	-2.06	+0.06	+0.07	+0.13	+0.08
	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
51	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
50	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
47	+0.03	-2.20	+0.10	+0.16	-0.44	+0.08
49	+0.03	-2.25	+0.01	+0.16	-0.44	+0.08
48	+0.03	-2.25	+0.01	+0.16	-0.44	+0.08
48	+0.03	-2.25	+0.01	+0.16	-0.44	+0.08
4	+1.34	-2.17	+4.01	+6.17	+2.55	+2.13
4	+1.34	-2.17	+4.01	+6.17	+2.55	+2.13
4	+1.34	-2.17	+4.01	+6.17	+2.55	+2.13
3	+1.34	-2.17	+4.01	+5.57	+2.55	+2.13
5	+1.42	-2.09	+4.07	-0.56	+3.07	+2.21
1	+3.10	+5.08	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
1	+3.10	+5.08	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
1	+3.10	+5.08	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
1	+3.10	+4.42	+4.06	+3.00	+5.52	+16.30
1	+3.09	+6.39	+4.48	+4.57	+7.03	+17.14
1	+3.09	+14.01	+4.48	+4.57	+7.15	+17.14
1	+3.09	+12.25	+4.48	+4.57	+7.15	+17.14
1	+3.09	+12.25	+4.48	+4.57	+7.15	+17.14
1	+3.36	+13.13	+5.53	+7.37	+11.27	+20.10